

"la Caixa" Bilboko Museoaren babesle da 1999. urtetik

Obra Social "la Caixa" k kultura sustatzen eta zabaltzen lagunduko dio Guggenheim Bilbao Museoari

- **Jaime Lanaspak, Fundació "la Caixa"ren zuzendari orokorrak, eta José Luis Bilbaok, Guggenheim Bilbao Fundazioaren Batzorde Betearazlearen presidentek, bi instituzioen arteko lankidetzaren hitzarmena sinatu dute gaur goizean.**
- **Akordioak bi erakundeen arteko harremana indartzea du helburu. Lau urte iraungo duen lankidetzaren proiektu berri horren bidez, Museoak 350.000 euroko dohaintza jasoko du Obra Social "la Caixa"ren eskutik.**

Bilbo, 2011ko martxoak 30.- Fundació "la Caixa"ren zuzendari orokorrak, Jaime Lanaspak, eta Guggenheim Bilbao Fundazioko Batzorde Betearazlearen presidentek, José Luis Bilbao Egurenek, bi erakundeen arteko lankidetzaren hitzarmena sinatu dute gaur goizean. Ekitaldian izan dira Juan Ignacio Vidarte, Guggenheim Bilbao Museoaren Zuzendari Nagusia, eta Juan José Muguruza, "la Caixa"ko iparraldeko lurralde zuzendari exekutiboa.

Obra Social "la Caixa" k Espainiako kultura-instituzio handiei jakintza sustatzen eta zabaltzen laguntzen die; zeregin horretan, erakundea Guggenheim Bilbao Museoaren Fundazioarekin lankidetzan aritu da 1999tik, urte horretan sartu baitzen babesle gisa Kide Korporatiboen Programan.

Hitzarmen berriaren bidez, bi instituzioen lankidetzaren estutuko da eta Obra Social "la Caixa" k 350.000 euro baino gehiagoko dohaintza eskainiko dio Museoari. Gainera, entitatea Guggenheim Bilbao Museoaren Fundazioaren Patronatuaren kide bihurtuko da.

”la Caixa”, munduko museorik garrantzitsuenei laguntzen

Obra Social “la Caixa”ren eta Guggenheim Bilbao Museoaren Fundazioaren arteko lankidetzak bi instituzioek jakintza sustatzeko duten gogoaren emaitza da.

Hitzarmen hau Obra Social “la Caixa”k bultzatutako jarduera berrietako bat da, eta jarduera horiek munduko museo garrantzitsuenekin aliantza estrategikoak sortzea dute helburu, museoen kultura-eragina areagotzeko eta nazioarteko instituzio ezberdinen arteko sinergia pizteko. Erakundea beste instituzio batzuekin ere dabil elkarlanean: Louvre Museoari, esaterako, erakusketak antolatzen laguntzen dio, El Prado Museoari eskolentzako eta familientzako hezkuntza-programak garatzen laguntzen dio eta Museu d’Art Contemporani de Barcelonari (MACBA) arte garaikideko bildumak koordinatzen eta kudeatzen laguntzen dio.

Informazio gehiagorako:

Guggenheim Bilbao Museoa

Idoia Arrate – 944 35 90 08 - iarrate@guggenheim-bilbao.es

Obra Social ”la Caixa”ko Komunikazio Saila

Izaskun Azcona – 944 35 62 48 – izaskun.azcona@lacaixa.es

Josué García - 934 046 151 / 638 146 330 / jgarcial@fundacionlacaixa.es

<http://www.lacaixa.es/obrasocial>

Multimedia Prentsa-aretoa

<http://prensa.lacaixa.es/obrasocial/>